

AGUR, LORAK!

Ikus gaur uda barri alai jatorkuna;
Oiz dot begi-mende, andik dot argia...
Goiz-doe ditzikorra -Urtzi'ren begia-
Lur amak, itxarturik, bera dau zoruna.

Leendik dagoz zugatzak muskillez aseak,
negu luzez etsirik, zuen ernemina!

Ar eizue guztiok nire agur mina,
begi-gorri ta pinport zuek bai gaineak!

Neuk be biotz-barru ba-ditut apetak,
giza-lur astunari zirkin egin naiez;
or zaituek eredu azpitik oldarrez,
olan leunago jataz gogo-guduketak.

Gizaseme gara-ta -ni bait naz oartzen-
su-garraxia doart, grinhen iskanbilla,
lorak!, zuen antzeko bizi-nai bipilla,
baiña sotil diardut eurak menderatzen.

Xedeari jarraituz noa bizitzan zut,
urteak, illak eta egunak joanik,
ainbeste aldaketa gainbera jadanik,
barrunba asi, barrunba zuri ezar dautzut.

Euskaldun nabil emen, lanari emona;
inoiz txaloak ditut, iraiñak geiagöz.
Jainko-miñez nabillen, barnean euskal-poz
saria dakar lanak, jar aolku ona.

Agur, lorak! Eredue zaituet aberats;
Urtzi dozue beti zelanbait ospatzen.
Nik eresi Jaunari, leen-argia agurtzen.
zuek emon ta zabal beronik barne-ats.

Igotz